

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 6.atala

DATA: 2024/05/17

GUREAN

GURE DANTZARIAK BIDEBIETAN

Pasa den igandean, maiatzaren 12an, gure ikastolako dantzariak, urtero bezala, parte hartu zuten Bidebietako jaietan. Maila guztietako ikasleak ikusteko aukera izan genuen, HHtik DBHra. Dantzen artean, zintza dantza, joko dantza, maltzeta, ttipitto eta Axun klakla, besteak beste.

Ikastolak urte asko daramatza auzoko jaietan parte hartzen eta beti plazer bat da. Aurten, goizeko 11:00etan 60 bat ikasle Bidebietako kirol kantzako eszenatokira igo ziren eta bertaratu ziren guztiak aho bete hortz utzi zituzten aurten landutako dantzekin. Datorren urtean, berriro, apuntatuko gara!



GURE INGURUAN

DONOSTIATRUK

NOIZ: Maiatzak 18
NON: Tabakalera
NOIZ: 10etatik 14:00tura



Udalak antolatzen duen bigarren eskuko azoka bat da Donostiatruk. Hil honetan, maiatzaren 18an egingo da.

Hauek dira azokaren xede guztiak:

- Herritarrei objektu erabiliak berrerabiltzeko aukerak ematea.
- Berrerabilpenaren eta hondakin sorreraren prebentzioaren filosofia eta jarduera sustatzea.
- Bigarren eskuko azokei ospea ematea.

LURRALDIA 2024 ASTIGARRAGA

Maiatzak 15 San Isidro eguna da, baserriarrentzat egun handia. Aste honetan egitarau zabala izan dute bai Astigarragan, baita Hernanin ere.

Igande honetan ospakizunekin jarraituko dute Astigarragan. Hona hemen iganderako egitaraua:

Maiatzak 19, igandea, ILARRAREN EGUNA

10:30-14:00, Foru plazan:

- ILARRA azoka berezia, eta Euskal Herriko produktuak
- Inguruko eta herriko baserrietako abere ezberdinen erakusketa.
- Pintxo dastaketa Fede Pacharen laguntzarekin. Sagardoa.